

## AYUNTAMIENTO DE ARRATZUA-UBARRUNDIA

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, artxibozaina-administraria plazari.

Azaroaren 20ko 339/2023 zenbakiaren Alkatetza-Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

**Gaia:** Egonkortze-prozesua. Lehiaketa. Onartuen eta baztertuen zerrenda onartzea eta epaimahai kalifikatzailea argitaratzea

Alkatetzaren 2022ko abenduaren 5eko Dekretuaren bidez onartu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren esparruan salbuespenezko deialdia eta oinarri orokorrak eta espezifikoak, artxibozain/administrari lanpostua lehiaketa bidez betetzeko. Eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administraria; C1 taldea; hizkuntza-eskakizuna: 2; derrigortasun-data: 2022ko ekainaren 22a. ALHAOn argitaratu ziren (145. zk., 2022ko abenduaren 19koa), eta akatsak zuzendu ziren (ALHAO, 33. zk., 2023ko martxoaren 20koa). Era berean, iragarki-taulan eta udalaren webgunean ere argitaratu ziren.

Oinarrien laburpena 2023ko maiatzaren 11ko EAOn argitaratu zen (112 zk.). Ondoren, hogeitun egun balioduneko epea ireki zen eskabideak aurkezteko, eta 2023ko ekainaren 8an amaitu zen.

Epe horretan eskaera bat aurkeztu da.

Ondorioz, onartutako oinarri orokorren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikuluan ezarritakoaren arabera,

Honen bidez, EBATZI DUT:

**Lehena.** Arratzua-Ubarrundiako Udalean artxibozain/administrari lanpostua hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, lehiaketa-sistemaren bidez (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzea).

Izen-abizenak	NAN	Onartua / Baztertua	Arrazoia (1)	Autobalorazioa Puntuak
Izaskun Filloy Nieva	***6291**D	onartua		100


(1) Baztertzeko arrazoiak: eskaerarik eza (A), epez kanpoko eskaera (B), epe barruan zuzendu gabeko eskaera (C), tasa ez ordaintzea (D), atzera egitea (E).

**Bigarrena.** Izangaiek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte eskabidean adierazitako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik Aurrera (2023ko azaroaren 27an argitaratua). Errekerimendu hau eskabidean alegatutako merezimendu guztiei buruzkoa da, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar diren merezimenduei buruzkoa, izan ezik, salbu eta eskatzaileak arrazoitutako aurkakotasuna aurkezten badu. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurkakotasun eredia jasotzen dituen.

**Hirugarrena.** Izangaiek adierazi beharko dute zein titulazio erabiliko duten deialdian parte hartzeko, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko da. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

**Laugarrena.** Dokumentazioa administrazio deitzailearen egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango da, edo, aurrez aurre, erakundearen erregistro-bulegoan eta herritarrei arreta emateko bulegoan. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira.

**Bosgarrena.** Hautaketa-prozesu horretarako epaimahaietako kide honako hauek izendatzea:

	Titularra	Ordezkoa
<b>Presidentea</b>	Pablo Martínez de Arbulo Echevarria	Alexander Rodríguez López
<b>Bokala</b>	Vanessa Domínguez Casal	M <sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas
<b>Bokala</b>	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
<b>IVAPen ordezkarria</b>	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano

<b>Idazkaria</b>	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina
------------------	-----------------------------------	--------------------

**Seigarrena.** Ebazpen honen argitalpena ALHAOn, erakundearen iragarkitaulan eta udal webgunean argitaratzeko agintzea: <https://arratzua-ubarrundia.eus/eu/udala/enplegu-publicoa>

**Zazpigarrena.** Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Alkatezari, hilabeteko epean, ebazpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan eskumena duen organoaren aurrean, bi hilabeteko epean, egun beretik aurrera zenbatzen hasita, eta ezin izango dira bi errekurtsoak batera aurkeztu. Nolanahi ere, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezake.

Era berean, auzitegiko kide direnen kasuan, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada, edo deialdia egin aurreko azken bost urteetan izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte, interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte epaimahaia osatzen duten pertsonak, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Durana, 2023ko azaroaren 20<sup>a</sup>. Alkatea, M<sup>a</sup> Blanca Antépara Uribe



## I ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, dagozkien erregistroetan, administrazio publikoen datuen kontrolerako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundearen kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jardueraren ardura duen organoak ikusten badu.

Arrazoitutako aurkakotasunen bat agertuz gero, horrekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira aurkakotasun horren motibo diren dokumentuak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak honako datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean:

- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara-ziurtagiriak.
- IT Txartelen ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak

### DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA EMATEA / BAIMENIK EZ EMATEA

.....jaunak /andreak,  
.....NAN zk.dunak, ondorengo prozedurarekin lotuta:  
.....,

ADIERAZTEN DU (dagokiona markatu):

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, **ez nago** eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.
- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatuz, honako informazio hau kontsultatzearen **aurka nago**:
  - Euskararen hizkuntza eskakizuna
  - IT Txartelen ziurtagiriak
  - Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak

Aurkaritza adierazteko arrazoiak:

.....  
.....  
.....

Kontsultatzearen aurka nagoen ondorengo dokumentuak aurkezten ditut:

.....  
.....  
.....

.....n, .....ko .....(a)ren .....(e)an.

Sin.:

## II ERANSKINA

### BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULAZIO-AITORPENA

.....jaunak/andreak,

..... NAN

zk.dunak,..... erakundearen ondorengo

deialdiarekin lotuta: .....

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan aurkezteko betekizun modura, ondorengo titulazioa erabiliko

dudala: .....

Honako datan jaso nuena: .....

.....n, .....ko .....(a)ren .....(e)an.

Sin.: